

Lasarte-Orian erronka EUSKARAREN ERABILERA %20 EGIN AL DEZAKE GORA ASTEBETEAN?

Konpromisoa hartu duzu. Zerrenda osatu duzu zure etxekoekin, lagunekin, lankideekin eta ezagunekin. Denek euskaraz ulertzen dute. Zure erronka astebetez haiei euskara hutsean egitea izango da. Lasarte-Orian egin zuten erronka hori eta partaideei hiru aldiz galdetu zieten euskararen erabilaren zenbatekoa. Erronka hasi aurretik %62,4koa zen; astebeteko erronka egin eta gero erabilera %83,8ra igo zen; eta handik hiru hilabetera %81,3an zegoen.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: TXINTXARRI ALDIZKARIA

Udaltop, Udaletako Euskara Zerbitzuen topaketetan, Lasarte-Orian, eskaini ziren datuok eta beste hainbat maiatzaren 11n. 2016ko urriaren 23tik abenduaren 3ra bitartean Lasarte-Orian bertan “Baietz 40 egun euskaraz!” erronka egin zuten Ttakun Kultura Elkartek eta Udaleko Euskara Zerbitzuak. Herri erronka baliatuta, ikerketa egin dute eta Pello Jauregi EHUKo irakasleak ikerketa-ekin-tzaren emaitzak aurkeztu zituen.

Datu deigarriena sarreran aipatu duguna da. Astebeteko erronkan parte hartu zuten “ahobiziek” –euskaraz egiteko konpromisoa hartu eta rol horri zegokion txapa paparrean jarri zuten– euskaraz zeinekin arituko ziren beraiek aukeratu zuten (senideak, lagunak, lankideak, ezagunak). Ulertzekoa da astebeteko erronkan, halako epe laburrean, erabilerak erraz gora egitea, %62,4tik %83,8ra. Pello Jauregi bera eta beste hainbat harritu duena da hiru hilabete ondoren erabilera %81,3an manten-

tzea. Datuok ikusita jardunaldietan bati baino gehiagori etorri zitzaion galdera: “Portzentajea zenbatean egongo da hemendik urtebetera?”

Zein tarte zegoen euskararen erabilera hobetzeko eta zenbat egin zuen gora astebeteko erronka garaian eta ondoren? Hasierako erabilera %62,4koa bazen, hobetzeko tarte %37,6koa zen. Bada, erronka garaian euskararen erabilerak hobe zitekeenarekiko %56,9 aurreratu zuen. Handik hiru hilabetera portzentajea %50ekoa zen.


Emaitzetan ez dago ustekabekorik generoari, adinari, harreman motei eta euskara gaitasunari begiratzen badiegu. Hau da, euskaraz aritzeko konpromisoa emakumeak ala gizonak hartu ia ez dago alderik erabilera-bilakaeran. Erabilerak ez du gora edo behera nabarmen egiten “ahobiziaren” bikotea senidea, laguna, ezaguna ala lankidea izan. Parte-hartzailearen hizkuntza gaitasunak ere ez du aldaketarik eragin. Zerbait aipatze-



kotan, oso ñabardura leuna bada ere, adinaren arabera portzentajeak dira. 16-30 urte artekoek eman dute jauzi handiena erronka aurreko eta erronka ondorengo erabilera datuetan, eta handik hiru hilabetera egindako galdeketa erantzunen arabera, aldaketari ondoen gazteek heldu diote. Hurrenez hurren horrela dira datuak: %60,1eko erabilera, %84,7koa, eta %84,7koa.

Zuk euskaraz egiten badidazu... ni ez naiz atzean geratuko

Zu “belarriprest” zara. Zuk hartu duzun konpromisoa ez da euskara hutsean aritzea, baizik eta paparrean jarri duzun txapari esker, “ahobiziari” bi mezu eman dizkiozu: “Nik euskaraz ulertzen dut eta zuk niri euskaraz egitea ondo hartzen dut”. Beraz, “belarriprestei” ondoko galdera egin zioten erronka bukatutakoan, horien kasuan sei asteko erronka: Zuri erronka aurretik baino jende gehiagok hitz egin al dizu euskaraz erronkan



Erronkan 957 pertsonak "ahobizi" rola hartu zuten eta 1.927 lagunek "belarriprest" rola. 104 "ahobizik" erantzun zituzten erabilerari buruzko hiru galdetegiak eta 500dik gora "belarriprestak".

zehar? Eta baiezko erantzuna %64,9 eta %77,4 artean dabil. "Belarriprestak" diotenez, lankideak dira euskaraz gehien egin diotenak. Harroaldiak ordea, oso nabarmen egiten du behera galdera bera hiru hilabetera egiten zaionean, alegia, jada paparrean "belarriprest" modura identifikatzen duen txaparik ez darmanean. Portzentajeak harreman eremuen arabera %52,7tik %27,8ra doaz. Etxekoak dira "belarriprestei" euskaraz egiteari gehien uzten diotenak.

Beste galdera bat ere egin zitzairen "belarriprestei": "Ahobiziak" zuei eten-

gabe euskaraz ari zitzazkizuenek, zuek hartu al zenuten euskaraz erantzuteko joera? Pello Jauregi ikerlariaren ustez, galdera horren erantzunek erakusten dute simetriarako joera egon dela, hau da, nahiz eta euskaraz egiteko konpromisorik ez hartu, eta nahiz eta sarri euskara gaitasun ahula izan, "ahobiziek" berera eraman dituzte "belarriprestak" eta euskara "kutsatu" diete. Euskararako joera nabarmena izan duela erantzun zuen %75,8k eta %18k joera pixka bat. Gaztelaniari nabarmen edo pixka bat heldu ziotenak %6,2 dira. ■

"BAIETZ 40 EGUN EUSKARAZ" LASARTE-ORIAN



40 urteko emakumea

Zein izan zen "ahobiziaren" soslaia? 40 urte inguruko emakumea, euskaraz ulertzeko eta mintzatzeko gaitasun ona duena, eta erronka bereziki etxeokoen eta lagunekin gauzatu zuena.

%74,5

Galdera "belarripresti": Erronka aurretik baino gehiago hitz egin al dizute euskaraz erronka garaian etxeokoen? %74,5ek baietz dio. Portzentajea, asko jaisten da hiru hilabetera. Orduan %27,8k dio etxeokoen euskaraz hitz egiten diotela.

%75,8

Eta "belarriprestak" "ahobiziari" euskaraz erantzuteko joerarik izan al du? Bada, %75,8k dio nabarmen izan duela euskarara jotzeko joera.

BABESLEA: HERNANIKO UDALA



Herritarrok 4. urtez erabakiko dugu
udal aurrekontuaren 500.000 euro zertan inbertitu

erabaki.hernani.eus

